Prest! DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

231 zenbakia
2022 **urtarrila**

Prest!

BERBETAN: **TXERRA RODRIGUEZ** EUSKARA ELKARTEEN IKERLARIA

ERREPORTAJEA: DEUSTUALDEKO MEMORIA BIZIRIK MANTENTZEKO LANETAN **BARKUA:** 35 URTE BEGIRADA BEREZIEI LEKUA EGITEN

TOKIKOM

27-228-229-230-231-



Sustatzailea

Berbaizu euskara elkartea

Babesleak

txantxiku .Deustuko Aisialdi Taldea.

intxixu kastola

erraldoien ondalan konpartsa

BASKale

BIHOTZ ALAI FOLKLORE DANTZA TALDEA

ARRAVN TALDEA DEVSTV

ELORRI BERTSO ESKOLA

DEUSTUKO JAI BATZORDEA

S.D. DEUSTO

DEUSTUKO GAZTE LOKALA

zirikatzen!

eaj pnv deustu

EGUNSENTIA ESKAUT TALDEA 1982TIK

ernai Deustua

PARE HAUTSI BIOLOGIKI KATEAK

DEUSTUKO GAZTE ASAMBLADA

Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkartea da edukiaren erantzule bakarra

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Bilbao

Babestu Prest! urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

Izen-abizenak .....
Helbidea .....
Telefonoa .....
E-posta .....
Kontu zenbakia (Iban) .....

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

231 zenbakia
2022ko urtarrila

aurkibidea

Atxarte Salvador Navarro - Angel Prieto Fidalgo — **Iritzia** 4

Elena Kashlinova — **Gurera etorriak** 5

erreportajea 6
Deustualdeko memoria bizirik mantentzeko lanetan
Gure aiton-amonen argazkiak kajoi ilun zein kutxa zaharretatik atera eta Deustualdeko historia osatzen urte asko daramatzate Txema Luzuriagak, Txema Juanesek eta Kepa Gallastegik. Hirukoteak urte askoan zehar egindako inurri-lana hobeto ezagutzeko aukera izan dugu oraingoan.

Deustuko Ikastola — **Eskolak** 10

Marisorkien ibilerak (eta III): kargerak — **Behin batean** 12

Deustuko Unibertsitateko eta Zorrotzaurreko IMQ zentroko garbitzaileak greban — **Artikulua** 14

berbetan 16
TXERRA RODRIGUEZekin
Inork gutxik aztertu ditu euskara elkarteak. Txerra Rodriguezek berriz (Derio, 1978) argi zuen doktorego tesia egitea erabaki zuenean ardatz izango zituela. 30 urte mihigintzan. Euskara elkarteek euskararen biziberritzean izan duten eragina 1987-2017 da bere lanaren emaitza.

Bidarte eraikina (2011) — **Irudiak berbetan** 21

barkua bete berba 24

BERBAIZU EUSKARA ELKARTEA Egin zaitez bazkide!

KULTURA 35 urte begirada bereziei lekua egiten

PINTXODROMOA Venom hanburgesa

KULTUR TXOTX Dafne Gonzalez Villar eta Xabi Elbira

Prest!

Argitaratzailea:
BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustu 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Nerea Cubillo Urkizu
Erredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Jone Gartzia, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Irati Aritzeta, Maider Zalbidea, Hodei Torres, Maddi Argote, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurraga, Dafne Gonzalez
Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea, Bilbotik Perura
Argazkiak: Ecuador Etxea
Publizitatea: Nerea Cubillo Urkizu
Diseinua: BO5T
Maketazioa: Laura Freijo Iglesia
Inprimategia: Antza
Ale kopurua: 2.800
Lege Gordailua: BI-571-01

Atxarte Salvador Navarro
Hego-haizearen zurrunbiloan

Ari du hotza

Gogora ekarri nahi dut etxeari, egoitzari (gaztelaniazko domizilioari) babes berezia aitortzen diola legediak. Espainiako Konstituzioak, esaterako, hauxe dio: "Egoitza bortxaezina da. Ezin izango da inor bertan sartu edo egoitza erregistratu titularraren edo ebazpen judizialaren baimenik gabe, ageriko delituaren kasuan izan ezik."Halaber, berdin da zein den etxebizitzaren erabilera legitimatzen duen titulua edo eskubidea (jabetza, alokairua, prekarioa, okupazioa...), baita dituen baldintzak ere, pisua, txabola, kobazuloa edo furgoneta izan baitaiteke.Horregatik okupak, alokairua ordaintzeari utzi dioten maizterrak edota bankuari ordaintzeari utzi dioten etxejabeak ezin dira egun batetik bestera kaleratu. Ezinbestekoa da prozedura judizialaren bidez bideratzea.Baina Ibrahim, Subir, Toufik… deitzen zarenean, bertako hizkuntzak eta legeak ezagutzen ez dituzunean, edonor joan daiteke zure etxera eta alde egin dezazun ohar bat utzi. Edo pala batekin etxeko hormak bota, zu barruan egonda ere. Polizia sukalderaino sar daiteke gauez galdeketa egiteko. Inork ez baitu entzungo zure salaketa. Inori ez zaio inporta. Ia inori ez.

Badira hainbat auzokide Erriberan, lantegi zaharren hezurduretan egin dutenak habia. Infraetxeak. Zaborretatik, karitatetik eta elkartasunetik jasotakoekin hornitu dituzte, ahalik eta txukunen. Bertan dute egoitza, eta ez daude bakarrik, Erribera ez baita isilduko. Gainera, jakin badakigu gaur haiek direla zaurgarrienak, baina denok gaudela jo puntuan. Entzun ondo, espekulatzaile, gentrifikatzaile, lukurari eta mertzenarioak. Ez zaitezte okertu, auzo oso bat duzue parean.

Angel Prieto Fidalgo
Ikerlaria

Egon zaitez lasai!

Gobernua lehen mailako arreta suntsitzen ari dela ukaezina da. Suntsiketa hau esate baterako hitzorduetako itxaronaldietan islatzen da, gure familia-medikua ikusteko gero eta gehiago itxaron behar baitugu. Era berean, pandemia gainditzeko baliabide gehiago behar diren arren, inoiz baino osasun langile gehiago falta dira eta gainera, azken asteetan ikusi dugunez, lanean dauden osasun langileak erreta daude. Ezin dute gehiago!

Egunero kexatzen gara osasungintzaren egoeraz. Sarritan entzuten dugu norbait kexaka anbulatorioan telefonoa hartu ez diotelako, edo medikuarekin hitzordua bost egun beranduago eman diotelako, edo Koronabirusaz kutsatu eta baja eskatu ezinik dabilelako. Asko kexatzen gara, baina gutxik kaleetan adierazten dute beraien desadostasuna. Aste hauetan Bilboko Auzo Elkarteen Federazioak hainbat elkarretaratze deitu ditu Bilboko auzoetako anbulatorioetan. Horrez gain, sindikatu ezberdinek ere hainbat kaleratze jarri dituzte martxan osasun publikoaren alde.

Deustun urtarrilaren 12an eta 19an egindako kontzentrazioetan 300 pertsona inguru bildu garen arren, Deustuko biztanleriaren ehuneko bata baino ez da. Gehienek, nahiz eta egunero kexatu, nahiago izan dutelako etxean geratu.

Elena Kashlinova

Jatorria: Volgodonsk (Errusia), Volga eta Don ibaien artean.
Bizitokia: Deustu

Testua: Jone Gartzia Gerra

"Bertokoei zaila egiten zaie euskaraz ez dakitela onartzea, eta niretzat oztopo bat da"

Duela zortzi urte heldu zen Euskal Herrira Elena. Hizkuntzen zale amorratua da eta iritsi zenetik bertatik argi izan zuen euskara ikasi nahi zuela. Jarraitzen du ikasten, eta Elorri Bertso Eskolako bertsopaper taldean ere ari da.

Non jaio zinen?
Volga eta Don ibai handien artean dagoen Volgodonsk herrian, Errusiako hegoaldean. Bost urte nituenean Perestroika garaia hasi zen eta nire gurasoek Moskutik gertuko herri batera mugitzea erabaki zuten.

Zer dela eta etorri zinen Euskal Herrira?
Errusian Euskal Herriko auto-mozio enpresa batean egiten nuen lan. Bi urteko kontratu bat eskaini zidaten hemen, eta bigarren urtean orain nire senarra dena ezagutu nuen. Orain kontratu finkoa daukat, baina eszedentzian nago umeak txikiak direlako. Goizetan euskara ikasteko aprobetxatzen dut eta arratsaldean umeekin egoten naiz.

Zerk bultzatu zintuen euskara ikastera?
Arrazoi desberdinak ditut. Hasteko, euskara oso poetikoa iruditzen zait. Oso hizkuntza polita eta desberdina da, eta niri orokorrean hizkuntzak asko gustatzen zaizkit. Gainera, hemen bizi naiz eta uste dut errazagoa dela hemengo jendea ezagutzea eta ulertzea. Nire lagun mina euskalduna da eta berarekin euskaraz hitz egiten saiatzen naiz.

Zer da gehien kostatu zaizuna euskara ikastean?
Hiztegia, oso desberdina delako. Alemanera ikasi nuenean hitz batzuk errusiarraren antzekoan zirela ikusi nuen, ingelesarekin eta beste hizkuntza batzuekin berdina gertatzen da, baina euskarazko hitzak oso desberdinak dira. Horregatik ere iruditzen zait interesgarria bertsoak egitea, hitzekin jolasten duzulako.

Eta hitz egitea?
Batzuetan kostatzen zait ezezagunekin lehen hitza euskaraz egitea, ez dakidalako euskaraz dakiten edo ez. Nik badakit bertokoei zaila egiten zaiela euskaraz ez dakitela onartzea, eta niretzat oztopo bat da, baina gustatzen zait jendeak niri euskaraz egitea.

Zenbat hizkuntza dakizkizu?
Gaztelaniaz hitz egiten dut, ingelesez ere, errusieraz, euskaraz eta alemanez pixka bat. Asko gustatzen zaizkit hizkuntzak, linguistika ikasi nuen unibertsitatean.

Bertso eskolan ere ari zara. Nola animatu zara?
Nire lehen urtean lagun batzuk ber tso saio batera eraman ninduten eta ez nuen ezer ulertu, baina oso polita iruditu zitzaidan. Joan den urrian euskaltegiarekin barnetegira joan nintzen eta irakasle batek bertso ikastaro bat eman. Harrituta geratu nintzen zenbateko trebezia behar den hizkuntza batekin horren azkar malabareak egiteko. Hasieran pentsatu nuen atzerritar batentzat ezinezkoa izango zela eskola batean izena ematea, baina hemen nago. Pixka bat zaila da niretzat eta kideek pazientzia daukate nirekin. Izan ere, ez nabil soilik bertsoak egiten ikasten, euskara ikasten ere, eta hiztegia falta zait.

Gustura zaude Euskal Herrian?
Bai, batez ere lagun asko ditudalako, horrek laguntzen dit.

Sarri itzultzen zara familia bisitatzera?
Bai, niretzat familia oso garrantzitsua da. Hasieran lana zela-eta askotan itzuli nintzen. Orain ezin dut bidaiatu, baina oporretan joaten gara, gutxienez urtean bitan. Inoiz ez naiz lotuta sentitu herrialde batera, baina familiari bai.

Hemen gelditzeko asmoa duzu?
Uste dut baietz. Oso gustura nago hemen. Gainera, nire senarraren lana Euskal Herriarekin lotuta dago, kontsulta bat dauka Bilbon eta zaila izango litzateke aldatzea. Umeak eskolan hasi dira eta hemen ondo gaude.

Deusto Kirol Elkartea 1951. urtean. Txema Luzuriagak utzitako argazkia

DEUSTUALDEKO MEMORIA BIZIRIK MANTENTZEKO LANETAN

Gure aiton-amonen argazkiak kajoi ilun zein kutxa zaharretatik atera eta Deustualdeko historia osatzen urte asko daramatzate Txema Luzuriagak, Txema Juanesek eta Kepa Gallastegik. Hirukoteak urte askoan zehar egindako inurrilana hobeto ezagutzeko aukera izan dugu erreportaje honen bitartez.

Testua: Nerea Cubillo Urkizu **Irudiak:** Txema Luzuriaga, Txema Juanes eta Kepa Gallastegi

Bere egitasmoa 50 bat urtez luzatuko zela pentsatu gabe hasi zen Txema Luzuriaga deustuarra auzoko argazki zaharrak biltzen. Deustuko Familia Elkarteak auzoko argazki zaharren erakusketa bat antolatu zuen Madariaga Etorbideko egoitzan duela bost hamarkada inguru eta erakusketa jasotzeko unea heldu zenean, parte hartzaileek lagatako irudien kopia bana egitea erabaki zuen, kajoi batean gordeta gera ez zitezen. Egun hartatik gaur egunera arte 4000 argazki bildu ditu eta asko bere kabuz ateratakoak diren arren, beste asko jendeak emandakoak dira: "erakusketa antolatu zenean arte grafikoetan lan egiten nuen, argazkigintzan hain zuzen. Argazkiak jabeei itzultzeko momentua heldu zenean pentsatu nuen, eta zer gertatuko da orain argazki guzti hauekin? egun hartatik jende askok badaki Deustuko elizatearen argazki zaharrak zein berriak biltzen ditudala. Egun norbaitek etxean Deustualdeko argazkiren bat topatzen duenean zuzenean niri ekarri eta digitalizatu ostean artxibora gehitzen dut".

Argazki bilduma luzea izateaz gain, Deustuko "gauza guztiak" biltzen dituen datu basea ere badu ordenagailuan sortuta: "Edozein egunkaritan auzoarekin harremana duen albiste bat agertzen denean, orrialdea moztu eta zuzenean

Ibarrekolandako Mazo baserriaren aurrean jarritako iragarkia - Txema Juanesek utzitako argazkia

digitalizatu egiten dut, baina datu basea gutxinaka osatzen ari naizen zerbait da. Hasieran txantxetan hasi nintzen lan honekin eta orain 50 urte beranduago, jende asko etortzen da nigana informazio eske".

Bilboko Udalaren artxibategitik Gasteizko Sancho El Sabio fundazioraino, Bilboko Portuko agintaritzaren artxibotik pasatuta, Luzuriaga berak ere ate asko jo izan ditu egun duen artxiboa osatu ahal izateko. Hala eta guztiz ere, Txemak argi dauka argazki garrantzitsuenak herritarrek utzitakoak direla, "horietan ikusten baita benetan auzoa nolakoa zen garai hartan, zeintzuk ziren bizitza ohiturak, giroa…".

Argazki esanguratsuenekin bi liburu argitaratu ditu Luzuriagak. Lehen liburua 2000. urtean osatu zuen, Deustuko elizate zaharraren inguruko 200 bat argazkirekin. Lanaren azalak kolore gorria du auzoko armarriaren omenez eta irudi guztiak 1925. urtea baino lehenagokoak dira. 2005. urtean argitaratu zuen bigarren liburua eta bertan anexioaren osteko 300 irudi biltzen dira. Bilbok gauzatutako anexioari erreferentzia eginez, bigarren lanaren azalaren kolorea urdina da. Halaber honen artxiboko argazkietako batzuk ikusgai daude Deustuko Familien Elkartearen webgunean, digitalean.

Egungo Deustuko

Digitalizazioak ekarri duena

Luzuriagaz gain badira Deustualdeko beste gune batzuetan inurri lan honetan ibiltzen direnak. Argazkia eskuratu, eskaneatu, artxibatu eta kasuan kasu webgune edota blog batean sareratu. Horiek horrela auzokideek utzitako argazkiak digitalizatzeaz gain, Txema Juanesek eta Kepa Gallastegik San Inazio eta Ibarrekolandako irudi zaharrak ezagutzera emateko asmoarekin webgune bana kudeatzen dute. Txema Juanesek esate baterako 'Ibarrekolandatarrak' izeneko bloga kudeatzen du eta horrez gain 'Ibarrekolanda, historia reciente de un barrio' liburua argitaratu zuen 2006. urtean, auzoaren izena eta izana ezagutzera emateko helburuarekin. Liburuaren hitzaurrean hau irakurri daiteke: "Ibarrekolanda izenak gure artean jarrai dezala nahi dut liburu honekin, ea auzoaren izena Ibarrekolanda dela barneratzen dugun, eta ez Sarriko edo San Inazio". Argazki zaharrez gain, hainbat datu ere topa daitezke ikerketa liburuan.

1978ko San Inazioko jaiak. Kepa Gallastegiren artxiboko irudia

Ibarrekolandako tren geltoki zaharra. Txema Juanesen argazkia

24 urte inguru zituenean beste sei lagunekin batera Ibarrekolanda Argazki Elkartea sortu zuen Juanesek. Bertan lehiaketak eta ibilbideak antolatzen zituzten auzoko kaleetan barrena eta ibilaldi horietan lortutako irudiak dira gaur egun bere artxibo nagusia. Luzuriagaren antzera honek ere auzokideek emandako argazki asko bildu ditu, horrela, gaur egun, soilik Ibarrekolandarekin harremana duten 100 argazki zahar zenba daitezke Juanesen artxiboan. Deustuko zein San Inazioko beste hainbat argazki ere es-

Euskararen Etxea
Zatoz!
www.euskararenetxea.eus
Agoitz plaza 1 48015 Bilbo, Bizkaia.
Tel.: 94 402 80 81
E-posta: info@euskararenetxea.eus
Metroa: San Ignazio > Lekeitio Irteera.

Hileta-segizio bat Deustuko hilerrirako bidean 1957. urtean. Txema Luzuriagak utzitako argazkia.

kuratu ditu baina horiek Txema Luzuriagari eman dizkio.

Azkenik, Kepa Gallastegik San Inazioko antzinako eta gaur egungo irudiak bildu ditu Tellaetxe.com blogean. San Inazioko kultur etxeko argazki laborategian ibili izanaren ondorioz auzoko argazki asko eskuratu zituen eta horiek denak digitalizatu eta sareratzea erabaki zuen, denon eskura egoteko. Gallastegiren artxiboa handitzen joan zen webgunea zabaldu ondotik, honen hitzetan "auzokide askok webgunea ikusi eta irudi gehiago bidaltzera animatu baitziren". Blogean besteak beste, 1978tik 2018ra arteko San Inazioko jaietako irudiak, Elorrietako irudi zaharrak eta urte askotako inauterietako irudiak aurki daitezke.

Erakundeetara salto

Memoria grafikoarekin lotuta, "auzoen historia hurbila berreraikitzea eta honetan sakontzea" xede, Bilboko Udalak Argazkineta egitasmoa martxan jarri zuen 2019. urtean. Ekimenak auzoetako bizilagunek utzitako dokumentazioa eta lekukotzak biltzen ditu auzoko kale ezberdinetan jarritako furgoneta batean eta handik eta aste batzuetara eskuratutako materiala pantaila baten bitartez ematen da ezagutzera. Orotara 3 edizio egitea lortu du Argazkinetak, lehena Zorrotzan, bigarrena Elorrieta, San inazio eta Ibarrekolandan eta azkena Santutxun. Udalak emandako datuen arabera, San Inaziorekin harremana zuten 1800 argazki eta 100 dokumentu baino gehiago digitalizatzea lortu zuen Argazkinetak 2020an auzokideen lankidetzari esker. Irudi guzti hauen aurkezpena 2020ko abenduaren 17an egin zuten Loiolako San Inazioko elizan.

Errelebo bila

Urte guzti hauen buruan bildutako artxiboari erreparatu ostean argi dago zein garrantzitsua den hirukote honentzako auzo baten memoria ahanzturan ez gelditzea. Hala, datozen urteetako artxibo grafikoa osatuko duen erreleboaz galdetu diegunean kezkaz erantzun dute. Izan ere, iragana bezain garrantzitsua izango da etorkizuna, eta hori jasotzen jarraitzearen beharra azpimarratu dute hirurek.

Iñaku Txikerra eta Jose Beaskoetxea - Txema Juanesek utzitako irudia

ANA BEJERANO ETXEBARRIA

Urtarrilaren 2an albiste triste bat jaso genuen: Ana Bejerano jantokiko lankideak utzi egin gintuen. Beti gogoratuko dugu bere adeitasuna eta guztiokin, bereziki hainbeste maite zituen haurrekin adierazten zuen tratu bikaina eta maitasuna.

Testua eta argazkiak: Deustuko Ikastola

Zurekin…

goizak atseginagoak izan dira,

marrazkiak koloretsuagoak

eta abestiak askoz politagoak.

Zurekin…

eguerdiak BETI izan dira alaiagoak

eta lo-kuluxkak lasaiagoak.

Pureak goxoago zeuden

eta jateko tresnak ondo erabiltzen

eta fruta jaten ikasi genuen.

Zurekin…

DENA izan da ERREZAGOA eta

HURBILAGOA.

Urte asko dira ikastolan lanean hasi zinenetik.

BETI izan zara langilea,

irribartsua,

isila eta umila

eta zer esan zure txikienekin…

haiekin maitakorra eta gozoa.

Ez da erreza izango zure hutsune horretan

egunerokotasuna.

Gure partetik,

bihotzez,

eskerrik asko!!!

ANAri AZKEN HITZAK

Korapiloa,
hutsune amaigabea,
elkar ikusiko ez dugula pentsatzean hotzikara.
Gogorra dugu urte hasiera.

Joan zaigu kidea,
joan zaigu laguna,
joan zaigu ANA, jangelako ahotsik ederrena.
Bere estiloan utzi du bizitzaren bidea.

Bizkorrena ez da onena,
goxotasunak badu kemena,
xamurtasuna da eraginkorrena,
biguna eta sendoa, bikoterik ederrena.
Zenbat ikasi genuen zurekin, Ana maitea!!

Zurekin berezi ginen sentitu.
Hitz gutxirekin gintuzun maitatu,
zure bizipenekin harritu,
eta nola ez, zure kantuekin liluratu.
Igortzen zenuen maitasuna betiko behar dizugu eskertu!

Orain minez behar gara zugandik banatu,
baina etorkizunean ere egingo zaitugu maitatu,
gaur malkotan gauden arren, gugan beti ahalko duzulako kantatu.

JANGELAKO LANKIDEAK

MARISORKIEN IBILERAK (ETA III): KARGERAK

Sorkia buruan behar egin zuten emakumeen zerrenda kargerekin amaituko dugu. Zamaketariak ziren, merkantziak kaiko ontzietatik sotoetara eta sotoetatik ontzietara buru gainean eramaten zituztenak. Bilbokoak ospetsuak izan ziren baina deustuar andre batzuk ere zeregin horretan jardun zuten.

Testua: Hektor Ortega

Kargerak lanean Deustuaren aurrean. 1902. Eulalia Abaituaren "Kresalibaia, behinolako irudiak" liburutik.

Ez dakigu noiztik jardun zuten emakumeek Bilboko kaietan zamaketari, baina badakigu XVIII. mendearen bigarren erdialdean behinik behin bazihardutela zeregin horretan. Horrela islatu zuen Luis Paret Alcazar pintoreak 'Bilboko Areatzaren bista' margolanean (1783-84). Emakume andana ageri da hor, merkantzia-kutxa buruan hartuta ontzitik lehorrera eramaten. Kargerak baziren, bai, orduan.

Halaber, dokumentatuta dauzkagu XIX. mendean zehar eta XX. mendearen hasieran Bilboko kaietan. Itsasadarra kanalizatu ahala, kai gehiago atondu zuten eta, hortaz, zamaketa lanak egiteko leku gehiago sortu ziren. Horrela, Areatzako kaiaz gain, Erripa, Uribitarte eta Abandoibarrako moiletan egiten zituzten ontzietako zamaketa lanak. Eta, dirudienez, Deustuan, Olabeagako (alegia, Erriberako) kaian.

XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran, kargeren jarduera nagusiak bakailao, ikatza eta mea zamatzea izaten ziren. Bereziki latza izaten zen mea eta ikatza kargatzea, pisu handiak eraman behar izaten zituztelako buruan, sorkiaren gainean, paratutako zaranean (otzaran). Lan zikina ere bazen, diru gutxiren truke egin beharrekoa eta, gainera, askotan gaitza izaten zen lana lortzea ere.

Hortik etortzen ziren kargerek eragin ohi zituzten zarraparrak, sarritan euren arteko istiluen ondorioz. Istripuak ere ugari gertatzen ziren. Eta ez ziren gutxi seinak alboan hartuta edo haurdun lan egin behar izaten zutenak, ezta bizimodu latzari eusteko alkoholizatuta amaitzen zirenak.

1892ko apirilaren 11n lan-istripua gertatu zen gaur egun Euskalduna jauregia dagoen aldean, Deustuaren aurrean baina Abandoko mandan. Han zegoen atrakatuta Barmston baporea. Arratsaldeko lauretan emakume andana zihardu en, atzera-aurrera, otzaratan kargatutako burdin-mea ontziratzen. Ohi bezala, baporearen eta kaiaren artean ohola paratu zuten, bertatik egin zitzaten kargerek euren joan-etorriak. Baina, hura tamala, orduan ohola erdi-erditik apurtu zen eta hamasei andre (hamasei!) uretara jausi ziren.

Inguruan zeuden pertsonak laguntzera hurbildu ziren arren, emakume bi hil ziren. Deustuko Francisca Bilbao oso mailatuta atera zuten uretatik eta berehala zendu zen. 50 urteko alarguna zen. Bonifacia Teran, berriz, itota hil bide zen, bere hilotza baporearen azpian katigatuta gelditu zen eta. Biharamunean agertu zen. Cuencan jaiotakoa, 49 urte zituen. Senarra larri gaixorik zegoen ospitalean. Alaba bi utzi zituen umezurtz: Gertrudis eta Lucia, zaharrena hamasei urtekoa, biak ala biak Deustuko latorrifabrika bateko beharginak.

Hildako bien adinak eman digu atentzioa. Ez ziren gazteak horrelako behar gogorretan jardun arren. Beharrizan handiaren seinale. Gainerako emakumeetako batzuk kolpe mingarriak sufritu zituzten, ibaiertzeko harrien kontra jo eta gero. Beste batzuk uretan zaranari eutsita iraun zuten, sorotsi zituzten arte.

Grebalarien piketea

Baldintza gogorrak hobetzen ahalegindu ziren langile haiek, oztopoak oztopo. 1911ko ekainean ikatza zamatzen zuten andreek grebara jo zuten, egun batzuk lehenago gizonek egin zuten bezala. Emakumeek soldata altxatzea eskatzen zuten. Gizonek baino dezente gutxiago irabazten zuten. Ekainaren 6an, goizeko seietan, 50-60 emakume grebalari agertu zen Deustuko Erriberan eta punta batetik bestera ibili ziren, "jarrera ez oso lasaigarria erakusten, ikatzaren zamaketa guztiak eragozteko asmoz". Horrela jaso zuen Bilboko El Nervión egunkariak. Kronika hartan bertan zehaztu zutenaren arabera, andre gehienak bilbotarrak ziren, baina tartean baziren deustuarrak ere.

Egun bi geroago, ugazabek eta langileek laudoa onartu zuten. Gizonei soldata altxatu eta orduak murriztu zizkieten. Emakumeek ere soldata igoera lortu zuten, eskatzen zutenaren erdia.

Hurrengo urteetan kargerak Bilbo eta alboherrietako kaietatik desagertu ziren. Zamaketa lanak gizonezkoentzat gelditu ziren. Jendarte burgesak ezarritako parametroak nagusitu ziren: emakumeak etxean; gizonak lantegietan eta plaza publikoan. Mugimendu sozialistak ere bere egin zuen, ñabardurekin, andreak lantokietatik desagerrarazteko joera hori. Aurreraxeago, ostera, aldaketa garaiak etorri zirenean, kargerak erreferente bilakatu ziren. Horrela aipatu zituen Emakume Antifaxisten Komiteak 1937ko maiatzaren 16an El Liberal egunkarian agertu zuen agirian: "Emakumeek ez dutela balio gotortze lanak egiteko? Ahaztu gara, antza denez, kaietako kargera zaharrekin; gomuta tristea da eurena, hain izan zen zitala ezarri zieten zapalkuntza".

kalderapeko
euskal kultur gunea
www.kalderapeko.com
txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

ALTERNATIBARIK GABE KALEAN GELDITZEKO ARRISKUA

Alogerekoak Etxebizitza Sindikatuak jakitera eman duenez, Deustuko Erriberako pabilioi batean bizi diren hainbat pertsona kaleratzeko arriskuan daude. Eraikina eraisteko lanak aurki hasiko direla zioen ohar bat utzi diete berriki sarreran, eta orain ziurgabetasuna da nagusi etxebizitzarik ez duten herritar horien artean.

Testua: Maite Txintxurreta Agirregabiria **Irudia:** Alogerekoak Etxebizitza Sindikatua

Deustuko Erriberako pabilioiaren sarreran aurkitutako mezua

Duela zenbait hilabetetik hona hutsik zegoen pabilioi batean txabolak eraiki dituzte etxebizitzarik eskuratu ezin duten hainbat herritarrek. Gaur-gaurkoz bertan aterpe hartzen duten zortzi pertsona bizi dira. Bada, lurrean errotulagailuz idatzitako eta esprai gorriz seinalatutako honako ohar hau aurkitu zuten duela zenbait egun: "Eraikina eraisteaz arduratzen den eraikuntza enpresakoak gara. Hondeamakinekin hasiko gara datorren astean. Mesedez, atera ezazue guztia. 2021-12-28". Pabilioian bizi den Khalidek azaldu duenez, inor ere ez da hurbildu haiengana egoeraren berri aurrez aurre ematera.

Hala, auzo elkartearekin harremanetan jarri dira, eta taldeak eraikuntza enpresako ordezkariengana jo du gaiaz galdezka. Alabaina, enpresak ukatu egin du abisu hori bere izenean utzi izana. Gertakari guzti horiek ziurgabetasuna eragin dute Khalid eta gainerako lagunen artean. "Argi daukagu lehenago edo beranduago hemendik bidaliko gaituztela", azaldu du. Bada, une honetan beren bizilekua den gune hori utzi behar izanez gero, alternatibarik gabe leudeke.

Dena den, oraingoz hantxe jarraitzen dute eraikitako txabolek nahiz bertako biztanleek. Ezustekoak larritu bazituen ere, auzo elkartearekin nahiz SOS Arrazakeriarekin batera dihardute lanean, eta euren defentsarako oinarri nagusia da jendea bizi den eraikin bat modu horretan hustea ez dela legezkoa.

Etxebizitza sindikatuak egoera salatu du, eta etxegabeen arazoari konponbidea emateko borondaterik ez dagoela dio. Deustuko Erriberako kasua, gainera, Zorrotzaurreko uhartea deritzon makroproiektuaren ifrentzua dela uste dute. Taldeak gogorarazi du duela urtebete baino gutxiago Euskalduna zubiaren azpian babesten ziren hainbat pertsona handik bidali zituela Bilboko Udalak.

DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO ETA ZORROTZAURREKO IMQ ZENTROKO GARBITZAILEAK GREBAN

Deustuko Unibertsitateko garbitzaileak urrian hasi ziren soldata arrakalari aurre egiteko mobilizatzen. Era berean, Zorrotzaurreko IMQ-ko garbitzaileak abenduan hasi ziren greban, urtarrilaren 1ean kaleratu zituzten 90 langileen postuak berreskuratzeko.

Testua: Pablo Martinez Canibe **Irudia:** ELA sindikatua

Unibertsitateko langileek urrian hasi zituzten mobilizazioei dagokienez, eta instituzioak zein zerbitzuaren titularra den Sodexo enpresak jaramonik egin ez zietela kontuan hartuta, berriro ere grebarako deia egin zuten azaroan. ELA sindikatuak salatu zuenez, eraikinen eta lokalen garbitzaileen baldintzak gizonezkoak gehiengoa diren garbiketa-sektoreen azpitik daude. Gainera, haien soldata Deustuko Unibertsitateak Gipuzkoan duen egoitzako langileena baino %11 txikiagoa da. Arazoa konpontzeko, hau da, jasaten duten arrakala eta diskriminazioari aurre egiteko, hitzarmen bat negoziatzea jarri dute helburutzat. Bestalde, Zorrotzaurreko IMQ-ko garbitzaileak ere egoera txarrean daude. Hain zuzen ere, urtarrilaren 1etik aurrera garbikuntza zerbitzua bere gain hartuko zuela iragarri zuen IMQ korporazioak azaroaren 25ean. Erabaki horrek, haien egoitzetako 90 langileren kaleratzea eragingo luke. Egoera honen kontra borrokatzeko, greba mugagaberako deia egin zuen ELA sindikatuak abenduan. Hala ere, IMQ-k ez zuen atzera egin eta urtarrilaren 1ean kaleratu zituen aipatutako 90 garbitzaileak. Gertaera honen aurrean, sindikatuak oso larritzat jo ditu kaleratzeak eta langileen grebarako eskubidea urratu dela salatu du. Are gehiago, ELA-k argi utzi du borroka juridiko eta sindikalean jarraituko duela lanpostu horiek berreskuratu arte.

ELA sindikatuak Deustuko Unibertsitatean egindako kontzentrazioa

TXERRA RODRIGUEZekin

Euskara elkarteen ikerlaria

“Euskara elkarteek euren

Inork gutxik aztertu ditu euskara elkarteak. Txerra Rodriguezek berriz (Derio, 1978) argi zuen doktorego tesia egitea erabaki zuenean ardatz izango zituela. 30 urte mihigintzan. Euskara elkarteek euskararen biziberritzean izan duten eragina 1987-2017 da bere lanaren emaitza.

Testua: Lur Mallea
Argazkiak: Ecuador Etxea

helburua birformulatu behar dute”

Euskara elkarteak berrikuntza artefaktu izan direla diozu. Bilboaldean zein ekarpen egin dute?

Bilboaldeko euskara elkarteen ekarpenen artean munarri batzuk daude. Lehenengoa, garrantzitsuena eta ziurrenik Euskal Herri mailan ikaragarrizko eragina izan duena Bilboko Kafe Antzokia izan da. Horren abaroan beste batzuk sortu dira, Plateruena, Ondarroakoa edota Derioko Baserri Antzokia adibidez. Bilboko eta inguruko euskaldunentzako gune erreferentziala izan da, eta da. Beste ekarpen bat, herri aldizkariena da. Euskara elkarteen ekarpen nagusienetakoak dira, nagusiena ez bada. Hirugarrenik, Berbalagun taldeak aipatuko nituzke. Sorrera Donostian izan bazuten ere, eragin handiagoa Bizkaian izan dute, Deustuko taldea beste talde batzuekin eta AEK eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin ellkartu zirenean. Ordutik, beste hedapen bat lortu du ekimenak.

Bada ekarpen berririk?

Sorreran aktibazio programak deitu zirenak eta gero Euskaraldia izena hartu dutenak. Lehendabiziko saiakera Egia auzoan, Donostian izan zen. Laster zabaldu ziren hainbat herritara, Deustu, Agurain, Andoain... hori azken urteotako ekarpen esanguratsu bat da.

Duela 20 urte sortu ziren *Prest!, Aikor, Anboto, Begitu eta Bizkaie!* tokiko aldizkariak euskara elkarteek sustatuta.

Izan dira eta dira euskaldun guztientzako moduko aldizkariak. Aurretik, euskal prentsan, oso euskaldunentzako hedabideak baino ez zeuden, Argia kasu. Duela 20 urte aldaketa ekarri zuten tokiko aldizkariek. Masiboak eta doakoak ziren, eta euskaldun bat zegoen etxe guztietara heltzea zuten helburu. Eta hori asko da. Ziur nago Deustualdeko etxe askotan sartzen den euskarazko komunikabide bakarra *Prest!* dela. Hori irakaragarrizko ekarpena da. Herri aldizkariek lana sortu dute euskaraz ikasi duten kazetarientzat. Ekarri dute ere bestela sekula idatziko ez zuen jende bat idazten hastea. Ekarri dute bestela publizitatea euskaraz egingo ez zuen jendeak publizitatea euskaraz egitea. Ekarpen horiek mahai gainean jarri behar dira. Hori beste inork ez du lortu.

Baina papera krisian dago eta digitala kudeatzen zaila da.

Gizartearen ibilbidea paperaren kontra doa eta digitalizazioaren alde. Baina digitalizazioa, baliabide aldetik, arazoa da eta, beste alde batetik, komunitatea trinkotzeko erronka handia. Saiakera asko egin dira baina oraindik, salbuespenak salbuespen, tekla hori ez da behar den moduan ikutu. Oso baliotsuak izan dira eta dira herri aldizka-

“Herri aldizkari gabe beste modu batean egongo ginateke”

▷ ▷ SAKONEAN

"Militantzia osoa euskara elkartean egin dut"

Mila gairen artean, euskara elkarteak aukeratu dituzu doktorego tesia egiteko. Zergatik?

Duela 20 urte Derion gazte batzuk batu ginen jai giroan. 2003an Tximintx euskara elkartea sortu genuen. Hizkuntzaren inguruko jakintza falta genuen. Orduan hasi nintzen soziolinguistika ikastaroak egiten, euskara biziberritzeko formakuntzan. Militantzia osoa euskara elkartean egin dut. Unibertsitatera bueltatu nintzen eta matrikulatu orduko tesiaren gaia erabakita neukan.

Lortu duzu zure helburua?

Asmo nagusia euskara elkarteen eragina neurtzea zen, baina hein batean hurbilpen bat da. Oso gutxi ikertu dira euskara elkarteak. Oso elkarte gutxik dauka eginda bere buruaren gaineko hausnarketa, bere historia jasota edota sistematizatuta, esaterako, zer lortu duten eta zer ez. Zentzu horretan, hasierako asmoa urardotuta geratu da.

Zergatik dago hain interes gutxi euskara elkarteengan?

Unibertsitatean ez dago ikasketarik. Dagoen bakarra lehengo Euskal Filologia da. Ez dago ikerketa talderik. Nire moduko txanpinoi bat etorri behar da, gaia azalerazi eta zelanbait ikertzen hasteko.

riak. Herri aldizkari gabe beste modu batean egongo ginateke gaur egun.

Bilboko Udalak zein erantzukizun du euskararen normalkuntzan?

Udalak ez du lortu hogeitaka urte luzetan eredu izaten. Gizarteari begirako gauza batzuk egin ditu, baina etxea garbitu barik espaloia garbitzera joan da. Hizkuntza eskubideak urratzen dira egun batean bai eta hurrengoan ere bai. Oso deigarria iruditu zait beti eta, konparazioak gorrotagarriak dira, baina Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuan 15 langile daude. Bilbokoan, ejem, horrek dakarrenarekin. Bilboko Udalak badu erantzukizun bat.

Eta elkarteek?

Hamaika ahalegin eta hamaika txiringito. Getxon, Gasteizen edota Iruñean euskararen aldeko herri mugimendua askoz ere indartsuago dago gaur egun Bilbon baino. Nahiz eta hiru hiri horiek oso auzo markatuak izan, euskararen aldeko mugimendua bateratuta dago.

Bilbon, ostera, auzoetan antolatzearen aldeko hautua egin da. Eta uste dut horrek hein batean Bilbo osoan eragiteko zailtasuna ekarri diela elkarteei. Auzotartasun horregatik. Horrek zer pentsatua ematen du.

Euskararekiko arreta aisialdian jarri behar dela diozu. Zergatik?
Ume eta gazteekiko gainditu ez dugun axiomatik dator. Euskaraz ikasiko dutenez, euskara erabiliko dute axiomatik. Hori honezkero gainditu beharreako da. Potentzialitatea badute, baina potentzialitatetik garapenera pauso bat dago. Uste dut, era berean arreta gutxi jarri zaiola aisialdiari eta horretan eragin behar dugula. Hutsune nabarmenetakoa da. XXI. mendean denok gaude ikus-entzunezkoen munduan sartuta. Filmak direla, serieak direla, baina baita Facebookeko memeak eta TikTokeko bideoak, eta hor badago mugitu beharreko errota.

Euskara elkarteetan dagoen nekea ere aipagai duzu. Nondik dator?
Nekea egon badago eta neke hori ez da euskara elkarteena bakarrik. Herri mugimendu osoarena da eta euskararen aldeko mugimendu osoarena dudarik gabe. Uste dut elkarteak sortu ziren garaiko antolaketa eta egiteko moduagatik datorrela neke hori. Profesionalizazioaren aldeko apustua egin zuten elkarte askok, eta eredu hori zelanbaiteko krisian dago, ez profesionalizazioa txarra izan delako, profesionalizazioak mugimenduaren ahuldadea ekarri duelako baizik.

Nekeari, zelan aurre egin?
Euskara elkarteek euren helburua birformulatu behar dute. Euskaldunen komunitatea trinkotzea da helburua. Baina inork ez du definitu hori. Helburu lauso batek aurrera egiteko balio du, baina zehaztasun batzuk izateak lagun dezake. Aurrera begirako ikuspegi zehatzagoa behar dute elkarteek. Adibidez, Deustualdean Berbaizuk 20 urtera lortu nahi du hau, hau eta hau.

Zein etorkizun dute euskara elkarteek?
Etorkizunari begira euskara elkarteek gauza asko egin behar dute. Esaterako, lekuko aldaketaren erronkari heldu behar diote. Era berean, antolaketa modu malguagoak behar dituzte eta militantziaren zentzua berreskuratu behar dute.

Militantzia berreskuratu?
Euskara elkarteetan militatzeak zeozer eman behar dio zure bizitzari. Zer? Satisfazio batzuk behintzat.

Korrika eta Euskaraldiarekin, 2022a inflexio urtea izan daiteke euskararentzat?
Espero dezagun, baina itxaropena baino ez da. Korrika eta Euskaraldia asko maite ditut baina 15 egun irauten dute eta bi urtean behin ospatzen dira. Esperantza larregi jartzen dugu kanpainetan. Uste dut egunerokoari behatu behar diogula ohi baino gehiago, hor dago benetako erronka. Mahai gainean ukabilkada emateko urtea da hau, baita bestelako ilusioak sorrarazteko gure jendearen artean, ze hori ere behar dugu. Baina benetako inflexio-punturako bestelako torloju buelta bat eman behar diogu egunerokoari.

Torloju buelta hori, noizko?
2022 urtearen hasieran baino ez gaude, ikusiko dugu.

"Bilboko Udalak ez du lortu hogeitaka urte luzetan eredu izaten"

INAUTERIAK

Badatoz inauteriak Deustualdera!

Otsailaren 18tik 20ra bitartean ospatuko dituzte aurten inauteriak Deustun. Ostiraletik hasita igandera arte hainbat ekintza antolatu ditu Deustuko Jai Batzordeak: ostiral arratsaldean Elektrotxaranga batek auzoko kaleak zeharkatuko ditu eta ostean, Done Petri plazan elkar ezagutzeko jolas ezberdinak prestatu dituzte kuadrilla gazteek. Larunbat goizean umeentzako tailerrak izango dira Done Petri plazan eta eguerdian urteroko bazkari herrikoia. Igandean ohitura den bezala San Felizisimoko elizatik abiatuko den desfile nagusia egingo dute Done Petri plazaraino. San Inazion aldiz, martxoaren 5ean ospatuko dituzte inauteriak, 'baserria' gaitzat hartuta bertakoak mozorratzera gonbidatu ditu San Inazioko Jai Batzordeak. Arangoitin eta Ibarrekolandan berriz ez dute inauteririk ospatuko.

FEMINISMOA

Deustualdeko Jardunaldi Feministak

Urtarrilaren 28an hasita eta otsailaren 6ra arte, Deustualdeko jardunaldi feministak antolatu ditu PARE Deustuko Gazte Talde Feministak. "Zeharkatzen gaituzten zapalkuntzez hausnartu, feminismoz armatu!" Ielopean, hitzaldiak, mahainguruak, bertso saioa, kontzertuak eta tailerrak antolatu dituzte, hausnarketa feminista bultzatu eta auzoan sareak eraikitzen jarraitzeko helburuarekin. Ekintza guzti horien egitaraua laster zabalduko duten arren, hainbat lan egun deitu dituzte "jende berria ezagutu eta aliantzak eraikitzeko asmoz". "Interesa duena gonbidatuta dagoela" azpimarratu dute. Informazio gehiagorako egon adi datozen egunotan Pare Deustu-ren profilari.

OSASUNGINTZA PUBLIKOA

Aurrez aurreko arretara itzultzeko aldarrikapena

Urtarrilaren 12an eta 19an kalitatezko osasungintza publiko baten aldeko kontzentrazioak egin dituzte Bilboko auzo ezberdinetako osasun zentroetako atarietan. Bilboko Auzo Elkarteen Federazioaren deialdiarekin bat eginda, Gora Deustu taldearen deialdiak 200 bat pertsona bildu ditu bi asteazkenetan Deustuko anbulatorioaren aurrean. Besteak beste, aurrez aurreko arretara itzultzea, Deustuko etengabeko arreta gunearen gaueko zerbitzu presentziala berreskuratzea, umeentzako pediatra zerbitzua auzoetako osasun zentroetan bermatzea eta konfiantzazko familia medikuak berreskuratzea dira elkarretaratzeetan zabaldutako aldarrikapenak.

HIRIGINTZA PLANA

Tranbiak Olabeaga eta Deustuko Erribera lotuko ditu

Deustuko Erriberatik igaro eta tranbia Zorrotzaurreraino helduko dela adierazi du Iñaki Arriolak, Eusko Jurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garrioetako sailburuak. Euskalduna Jauregitik Olabeagaraino heldu eta 100 metroko zubi baten bitartez helduko da etorkizunean. Uhartean guztira lau geldialdi ezarriko dituzte, azkena San Inazioko zubitik gertu.

Deustuko kanala pasealekua zabalik dagoeneko

Deustuko kanal zaharraren alboko bidean inauguratu dute urtarrilean Deustuko Kanala izena duen pasealeku berria. Bilbon oinezkoentzako dagoen ibilbiderik luzeena da, bi kilometro baino gehiago baititu.

Urtea: 2011

Txema Luzuriaga

Bidarte eraikina

Bidarte eraikina Asua arkitektura sariaren finalista izan zen 1965. urtean. Eraikinean patioaren tratamendu espresionistaren eta fatxadaren azalera teknologikoaren arteko kontrastea nabarmentzen da. Merkataritza gune bilakatu zenean izaera teknologikoa duten beste eraikuntza batzuen hasiera ere ekarri zuen Alvaro Libano arkitektoaren aldetik baita haren belaunaldiko beste arkitekto batzuen aldetik. Eraikina gaur egun Bidarte merkataritza-gunera egokitu da.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

Iragar zaitez
Prest!-en
tel. 94 447 10 42
bilbokoaldizkariak@gmail.com

AZALA
TATTOO STUDIO
Errondoko kalea z/g. Ibarrekolanda
tlf. 640 903 311
instagrama: @azala.tattoo

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303

Optica Avenida
Agirre Lehendakaria, 147
SAN INAZIO
Tfonoa: 94 475 11 24

ATXURI TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak
☎ 656 410 475
Plaza Celestino Mª del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 656 410 475
alonsoper@outlook.com

Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4

Toki Berri Taberna
Good vives!
Luzarra, 6 - Deustu
@tokiberritaberna

1924tik Deustun
Tintorería La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu

artez
euskara zerbitzua
Probatu
herrizki.eus
ANDROID APP Google play
App Store
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
BFA DFB

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek euskaltegia
Matrikula zaitez!

Nailan
Parquetak - Barnizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

RONDOKO HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
☎ 94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

KM PERSIANAS CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL. persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elektrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23

Uste duzu inauteriak normaltasunez ospatu ahalko ditugula?

Alba
Urduña

Baietz espero dut. Gabonetan kutsatze asko egon direnez espero dut otsailetik aurrera osasun egoerak hobera egitea.

Iker
Zornotza

Ez nago ziur baina gustatuko litzaidake normaltasunez ospatzea.

Karlos
Deustu

Ez dakit posible izango den. Hala ere uste dut Deustuko Jai Batzordea gai izango dela inauteriak modu seguru batean antolatzeko.

Andoni
Deustu

Ez dut uste normaltasunez ospatuko ditugunik. Osasungintzan inbertitzen ez den bitartean egoerak ez du hobera egingo.

Jone
Deustu

Ez. Uste dut neurri murriztaileak denbora luzez mantenduko direla.

Ibone
Bilbo

Nire ustez asko falta da oraindik inauteriak normaltasunez ospatzeko.

euskarak batzen gaituelako · berbaizu euskara elkartea

EGIN ZAITEZ BAZKIDE!

2022an PREST! eta BERBAIZUren babesle kuotak bateratuko ditugu. Azken urteetan Deustualdeko aldizkariaren eta euskara elkartearen bazkidetzak indibidualki landu dira. Aldaketa horren arrazoia da, ulertzen dugula PREST! eta BERBAIZUk bazkide berak izan beharko lituzketela, etengabeko elkarlanean eta norabide berdinean lan egiten baitute biek. Zaila izango litzateke bata bestea gabe ulertzea.
Zeintzuk dira bazkide batek jasotzen dituen abantaila edo zerbitzuak?

- Hilero PREST! jasotzea paperean eta digitalean.
- Deskontuak Berbaizuren proiektuetan: Txantxiku aisialdi taldean, Elorri bertso eskolan…
- Zozketetan parte hartzeko aukera.
- Ordaindutako urteko kuotaren %30a Errenta Aitorpenean kenkari aplikatzeko aukera.
- Deustuko merkatariekin hitz egiten gabiltza, bazkideek deskontuak izan ditzaten.

2021ean 25 euroko kuota ordaindu du PREST!ek eta 2022tik aurrera hiru kuota eskainiko ditugu:
- Gazte, langabe, langile prekario eta jubilatuentzako 30 euro (kenkariak aplikatuz 21 euro)
- Kuota arrunta 60 euro (kenkariak aplikatuz 42 euro).
- Kuota familiarra 75 euro (kenkariak aplikatuz 52,50 euro).

Kuotak otsailean pasatuko ditugu. Bazkide egiteko sartu **www.berbaizu.eus/berbaizukide-izan/** helbidean.

Babestu Deustualdeko aldizkaria eta euskara elkartea!

http:// sarekada

EUSKARAZ JOLASEAN!

Berbaxerka euskarazko hitz joko berria

Katalunian sortutako Paraulogic jokoaren euskarazko bertsioa da Berbaxerka. Letrak elkartuz ahalik eta hitz gehien lortu behar dira erdigunean gorriz nabarmenduta dagoen hizkia derrigorrez erabilita. Letrak egunero aldatzen dira eta sarean azken asteetan arrakasta handia izan du. Berbaxerka jolasean aritzeko ez da behar aplikaziorik deskargatzea, sarean jokatu daiteke eta mugikorrerako ere egokituta dago.

Wordle, hitz berri bat egunero

Berbaxerka jolasean ez bezala, Wordle jolasean hitz bakarra asmatu beharra dago gehienez sei saiakeratan. Saiakera bakoitzaren ondoren letren kolorea aldatu egingo da eta horrek hitza asmatzeko gertu zauden edo ez erakutsiko dizu. Talaios enpresaren eskutik etorri da hizki jolasa.



35 URTE BEGIRADA BEREZIEI LEKUA EGITEN

Bartzelonatik Bruselara eta Bruselatik Bilbora. Deustuko Ramon y Cajal kaleko 39. zenbakira hain zuzen. Bertan hasi zuten Luque Taguak eta Laura Etxebarriak 1986. urtean La Fundición proiektuaren ibilbidea. Egun, Francesc Macia kalean du egoitza aretoak, duela 35 urteko ilusio eta helburu berdinei eutsita.

Testua: PREST! **Irudiak:** La Fundición

GRUPO CHÉVERE - 2016 "Citizen"

La Fundicion aretoko programazioaren arduraduna da Luque Tagua. Laura Etxebarria berriz, zuzendaritzaz arduratzen da. Ramon y Cajalen hartutako pabiloiak bi entsegu gela eta erakusketa galeria bat zituen. Espazio hura dantzaren eta arte plastikoen bidegurutze bat bilakatu zen Taguaren arabera "proiektuak aurkeztu eta obrak erakutsi nahi zituztenen elkargune bat sortu genuen. Garai hartan proiektuak bi adar zituen, alde batetik antzerki garaikidearekin lotutako dantza espazio bat dinamizatzen genuen eta bestetik dantza konpainia ere baginen, estatuko areto ezberdinetatik zebilena".

Deustuko goialdean 10 urte bete zituzten une berean konturatu ziren Bilboko hazkundea itsasadarraren inguruan ardaztuko zela: Guggenheim museoa, Euskalduna Jauregia… eta haiek ere ardatz horren baitan kokatu nahi izan zuten La Fundición: "Francesc Maciako leku hau topatu genuenean ez genuen birritan pentsatu. Lekuz aldatzearekin batera proiektuari bestelako forma bat ematea erabaki genuen, komunikatiboki zaila baitzen proiektu baten dinamizatzaileak eta aldi berean sortzaileak izatea. Hizkuntza administratiboa hobeto ulertzen hasi ginen, proiektuari muga eta oinarri indartsua-


B-WID - 2019 "Premio Dantzan GO Eitb"

goak jarri genizkion eta artistak izatetik kudeatzaileak izatera igaro ginen. Egun 80 ikusleentzako aretoa dinamizatzen dugu".

Hala eta guztiz ere, aretoak egun hezurdura bikoitza duela esan daiteke. Proiektua erakusketa espazio bezala kokatuta ez dira gutxi urtean zehar taula gainera igotzen diren obrak: Dantzaldia, Lekuz Leku programa edota orotara La Fundicionen egitaraua osatzen duten 40 konpainia profesionalen erakusketak besteak beste. Aretoa baliabide zentro bezala ulertuta aldiz, artista amateurrek lanak garatu ahal izateko sorkuntza egonaldiak ahalbidetzen dituzte, ikusleen eta sortzaileen artean topaketak antolatzen dituzte baita aholkularitza instituzionala egin ere.

Hezurdurak ez ezik publikoak ere berezi egiten du Deustuko espazio hau, erakusketak ikustera datorren publiko gehiengoa bitxia baita Luqueren arabera: "orokorrean nolabaiteko informazioa duten ikusle eta entzuleak dira. Bada oso leiala den jendea, hasierako urteetan etorri eta oraindik joan ez dena… baina era berean bada gure eskaintza ulertzen ez duena eta hori ere ulergarria da. Aretoa martxan jarri genuenetik beti profil bat mantentzen saiatu gara eta hor egoten jarraitu nahi dugu".

36. urtea abian

2022. urteari hasiera ematearekin batera lehen hiruhilekoan hainbat egitasmo daude martxan. Sorkuntza egonaldien programaren baitan 'Mama crea' familientzako antzezlana izango dute otsaileko lehen asteburuan taula gainean. Hurrengo asteburuan berriz, Borja Fernandez konpainiaren 'Salvador' proiektu eszenikoa estreinatuko dute Euskal Herrian lehenbizi. Berrikuntza bezala magiaren inguruko hiru proposamen ekarriko dituzte otsailaren 18tik 20ra bitartean. Horietako bi familiaren munduari zuzenduta egongo dira gehienbat eta bestea helduagoentzako izango da.

Aretoa beste urte batez zabalik mantendu ahal izatea mirari bat dela azaldu du Luque Taguak, duela 35 urte elkargune hau martxan jarri zutenean ez zutelako halakorik espero. Alabaina, denbora guzti honetan eskuratutako bi Ercilla sariak 1994an eta 2006an eta Arte Eszenikoen Max Sariak 2007. urtean argi uzten dute egindako lana alderaezina dela.

LA VERONAL - 2016 "Russia"

PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

Venom hanburgesa

Rafaela Ybarra kaleko 14. zenbakian dagoen Buho Rojo tabernako hanburgesak ezagutzera hurbildu gara oraingoan, bertako Mikel Galanen laguntzaz.

Prezioa: Normala 11.50€ /Bikoitza 14€

Berezitasuna: Ogiaren kolore beltza

Kontu batzuk

Pandemia heldu baino bi hilabete lehenago taberna zabaldu zuenez, egitan hilabete horiek kontuan hartzen ez dituela azaldu digu Buho Rojo tabernako jabea den Mikel Galanek. 2020ko apirilean hasi ziren lanean, hanburgesak etxera eramateko zein lokalean jasotzeko prestatzen. Zalantza izpirik gabe hanburgesak dira Deustuko taberna honen berezitasuna, guztira kartan 15 baino gehiago topatu daitezkelako. Horrez gain 10 tortilla mota ezberdinen eskaintza zabaldu dute, betiere aurretiazko eskaerarekin. Berezitasunekin amaitzeko, saltsa guztiak bertokoak direla aipatu digu Galanek.

BÚHO ROJO
Rafaela Ybarra 14
Astelehenetan itxita
Astearte | asteazkenetan 19:00-23:00
Ostegun | igandetan 13:30 - 16:30
eta 19:00 - 23:00
Ostiral | larunbatetan 13:30 - 16:30
eta 19:00 - 01:00

Nolakoa da?

Halloween dataren baitan Venom izeneko hanburgesa aurkeztu zuen Buho Rojok, Spidermanen etsai nagusienetakoaren omenez. Orain estatu mailan ospatuko den II hanburgesa lehiaketara aurkezteko Venom 2.0 sortu dute, txuleta eta hirugihar bikoitzarekin.

Txipiroi-tintadun ogi beltzak bereizten du Venom, baita haragiaren kalitateak ere. Ogiari zaporea aldatzen ez dion arren, kolore beltzak atentzioa ematen du lehen begiratuan. Hirugiharra astigar siropearekin egindakoa da eta bi saltsa nagusitzen dira, etxeko barbakoa saltsa goiko ogian topatu daiteke eta behekoan berriz hanburgesari zapore gozoa ematen dion tipula erregosiarekin egindako ziapea.

Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!
Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...

ZURE PINTXO ONENAK GUREKIN KONPARTITZEKO

Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN

kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa

DAFNE GONZALEZ VILLAR

15 urterekin errezital poetikoetan parte hartzen hasi nintzen, 16 urterekin lehiaketetan parte hartzen, eta 18 urterekin argitaletxeen mundua ezagutu nahi izan nuen. Ia 20 urterekin leku horietara joateari utzi diot eta zaila egiten zait lehiaketetara eskuizkribuak bidaltzea. Leku guztietatik arrazoi beragatik egin behar izan dut ihesi. Ezin nuen jasan gizon askoren jarrera paternalista. Artea ederra da, sorkuntzan oinarritutako barne-prozesu bat. Lehen kilometroak zailak dira, zalantzak eta hausnarketa asko agertzen direlako. Sortutako munduan barneratzen zara kultura propio gisa. Bat-batean, kanpoko ezerk ez du axola. Zu eta papera bakarrik. Hitz egokiaren bila hasi eta ezagutzen ez zenituen ideiekin harremanetan hasten zara. Barruan zenituen sentimenduak ateratzen dira. Barruranzko espiral batean ibiltzen hasten zara, hitzekin aurkitu eta hauek ezagutu arte. Azken kilometroak zuzentzea, berriz irakurtzea eta lurrera itzultzea dira.

Sormena harrigarria da benetan. Zure pieza zizelkatuta duzunean, batzuetan erakutsi egiten duzu, ez besteek goraipatzeko, baizik eta zure eskuek sortu dutenaren eta beste batzuek sortu dutenaren artean komunikatzeko. Baina kanporatzeko bidea ez da erraza, are gutxiago emakumea zarenean. Hasieran uste nuen nire testuak okerragoak zirela eta ongi hartzen nituen gizon ezezagunengandik jasotzen nituen etengabeko zuzenketak. Orain, beharrezkoa ikusten dut emakumeok gure artea elkarbanatzeko espazio seguruak sortzea. Baita ere, gelditzea eta hori indarkeria dela onartzea. Zorionez, dena ez da horrela eta zenbait elkartek, beren komunitatea sortu dute. Imaginautak eta Harilka Elkartea orain nire etxea dira. Edonor gonbidatuta dago. Espero dut sorkuntza eta artea kanporatzeko bideak seguruak izatea egunen batean, eta jatorria zein hizkuntza arazo izateari uztea.

Doinua: Ai zer plazera bost urten buruan

XABI ELBIRA

Elorri bertso-eskolako kidea

Asabak lizunak ziren arren
ez gendun ohitura segi
Aspaldi saindutto hutsak gara
badago aski zeregin
Guztiok larrua jo nahi dugu
ta bihurtu kristauegi
Izkepot egin gura baduzu
ez pentsatu, txortan egin!

Ezarpenaren aztarna dugu
barnan daukagun apaiza
Maiti, jan ezazu nire grina
goza itxura anitza
Argi daigun herri sobirauak:
aske du sexu-bizitza
Iraultza hasi gura badugu
aska dezagun gorputza!

Mondragon Unibertsitatea

Gure ikasleen ahotan

"Ikasteko metodologia berritzailea, irekia eta lanarekiko malgua da"

Amaia Ruiz Castellanos (Güeñes, 19 urte) Humanitate Digital Globalak (HDG) gradua ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean.

Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak?, baduzu hobby edo zaletasunik?
Begoñazpi Ikastolan ikasi izan dut. Horrez gain, hainbat zaletasun ditut: atletismoan trebatzea, honen entrenatzailea izatea, familia eta lagunekin egotea eta futboleko epailea izatea, besteak beste.

Zergatik aukeratu zenuen Humanitate Digital Globalak (HDG) gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?
Begoñazpi Ikastolan entzun nuen lehen aldiz HDG zeritzen gradu arraro horren izena eta horren inguruko informazio gehiago eskuratzeko zerrenda baten izena eman nuen. Informazioa heltzen zitzaidan bitartean, beste gradu batzuetan trasteatzen ibili nintzen. Ordea, Covid-19 garaia etorri bezain laster, nire etorkizunerako planek kontrako norabidea hartu zuten, HDG graduaren norabidean. Honetan, konfiantza ematen zidan gradu bat ikasteaz gain, neure burua askoz hobeto ezagutuko nuela eta aurretiaz gustuko nituen hainbat ikasgai gozatuko nituela nahiko argi nuen.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?
Gizartearekiko hainbat ikuskera ezberdin ikasteaz gain eta metodologia guztiz ezberdinak barneratzeaz gain, lehen eta bigarren mailan jardun dudan denboraldi hau Covid-19-ak berekin ekarri izan didan borroka psikologikoarekin aurrera ekiteko lagungarri izan zait. Bestalde, aurkitu ahal dudan hutsune handia online klaseen erabilera da, batzuetan klase honek jarraitzea zaila egiten zitzaidalako.

Nola definituko zenuke Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?
Interesgarria, berritzailea, irekia eta lanarekiko malgua. Etorkizunerako lanean autonomoagoak izateko eta hobeto moldatzeko aukera ematen digu baita irudimenari leku handia uzten duela ere. Hasieran, gelako ia guztiei kostatu izan zitzaigun metodologia ez-ohiko honetara moldatzea baino gutxinaka ikasi dugu, sormena landuaz batera, ikasteko modu berri honetaz gozatzen. Metodologia honek eskaintzen dizkigun konpetentziak etorkizunerako erronkei aurre egiteko beharrezkoak izango dira.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna?
Asko gustuko dut sortu zenetik jarraitzen dituen baloreak eta lan egiteko moduak, baita ikasleei eskaintzen diguten aditasuna ere. Gure iritziei ematen dieten balioa nabarmentzekoa da eta baita haien arabera gradua birmoldatzeko duten prestutasuna ere.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?
Gradu honetan sartu nintzenean hezkuntza sozialaren munduan lan egin nahi nuen, egoera anitzetan aurkitzen diren pertsonen egoerak ulertu, moldatzen jakin eta haiekin batera etorkizun ezberdin eta duinago bat planteatzeko. Amaitzeko, hezkuntzaren eta kirolaren inguruan jarduteko ere gogo handiak ditut.

www.bilbaoeuskaraz.eus

EGIN ZAITEZ BABESLE!

Egin zaitez BERBAIZUKIDE eta babestu PREST! aldizkaria eta Deustualdeko euskalgintza.
20. urteurrenaren lamina jasoko duzu opari.

Informazio gehiago: prestharpide@gmail.com

DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA
Prest!

Berbaizu
euskara elkartea